

## **IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Informazio Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoen Zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legearen 10. Artikuluan adierazten dena beteta, MUGARIK GABEk, [www.mugarikgabe.org](http://www.mugarikgabe.org) webgunearen titular gisa, aipatutako arauan eskatzen diren datu identifikatzaileak ematen ditu:

**Sozietatearen izena:** MUGARIK GABE

**Erregistro datuak:** Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistro Orokorrean AS/B/00820/1988 zenbakiarekin izena emanda.

**Sozietatearen helbidea:** Etxaldea Garamendi Vicente Rv. 5, behea 48.006 Bilbo (Bizkaia).

**NIF:** G-48263446

**Helbide elektronikoa:** [bilbao@mugarikgabe.org](mailto:bilbao@mugarikgabe.org)

**Harremanetarako telefonoa:** +34 94 415 43 07

**Domeinua:** [www.mugarikgabe.org](http://www.mugarikgabe.org)

Informazio honek, [www.mugarikgabe.org](http://www.mugarikgabe.org) domeinu-izen pean argitaratzen den webgunearen erabiltzaileek onartu eta errespetatzeko konpromisoa hartzen duten erabilera baldintzak, erantzukizunaren mugak eta betebeharrak batu eta arautzen ditu.

## **ERABILERA BALDINTZAK**

Webgunea erabiltze hutsak Webgunearen erabiltzaile izaera ematen du, izan pertsona fisiko edo juridikoa, eta derrigorrez Lege Ohar honetan agertzen diren baldintza orokor eta klausula bakoitzaren onarpen oso eta baldintzarik gabea dakar.

Erabiltzailea Lege Ohar honetako klausula eta erabilera baldintzekin ados egongo ez balitz, Webgunea erabiltzeari uko egingo lioke. Lege Ohar honek aldaketak eta eguneratzeak izan ditzake, hortaz, argitaratutako bertsioa erabiltzailea Atarira sartzen den momentu bakoitzean ezberdina izan daiteke. Beraz, erabiltzaileak Lege Oharra Webgunera sartzen den bakoitzean irakurri behar du.

Webgunearen bitartez, MUGARIK GABEk erabiltzaileei Internet bidez MUGARIK GABEk edo baimendutako hirugarrengok argitaratutako askotariko edukietara sarbidea eta horien erabilera errazten die.

Erabiltzailea, Espainian indarrean dagoen legeari lotuta, Webgunerako sarrera eta erabileraren erantzule osoa izango da.

## **JABETZA INTELEKTUALA**

Kontrakoa adierazten ez bada, Webgunean agertzen diren eduki guztiek Creative Commons [«Aitortu-EzKomertziala-LanEraterririkGabe4.0](https://creativecommons.org/licenses/by/4.0/)

[Nazioartekoa. \(CC BY-NC-ND 4.0.\)](#) » lizentzia daukate, beste iturri batzuetako aipuak salbu, euren egileek ezarritako beste lizentzia batzuk izan ditzaketanak, bai eta aipu gisa edota gaurkotasunaren adierazpen gisa erabilitako irudiak ere.

## **WEBGUNEAREN ERABILGARRITASUNA**

MUGARIK GABEk ez du Webgunera sartzeko, bere Edukietara, etenaldi eta akatsik ez egotea bermatzen, ez eta horiek eguneratuak egotea, nahiz eta ahaleginik handienak egingo dituen, dagokion kasuan saihesteko, konpontzeko edo eguneratzeko.

MUGARIK GABEk edozein erantzukizun baztertzen du, indarrean dagoen legerian jasotzen denaren salbuespenarekin, Webgunearen eta Edukien erabilgarritasun, jarraikortasun edo funtzionatzeko kalitate faltak eragindako edozein kalte edo galeraren, eta erabiltzaileek Webguneari eta Edukiei leporatu ahal dieten erabilera itxaropena bete ez izanaren erantzukizuna.

## **ERANTZUKIZUNAREN MUGA**

MUGARIK GABE ez da, inongo kasutan, izan daitezkeen edozein motatako kalte eta galeren erantzule egiten, adibide gisa: edukien akats edo omisioak, edukietan birus edo programa txar edo kaltegarriak transmititzea, horiek saihesteko neurri teknologiko guztiak hartu diren arren.

Erabiltzaileari dagokio, nolana ere, programa informatiko kaltegarriak hautemateko eta konpontzeko tresna egokiak izatea, beraz, MUGARI GABE ez da Webgune zerbitzua eskaintzen duen bitartean gerta litezkeen segurtasun akatsen erantzule egiten. Era berean, erabiltzaileak Webguneko zerbitzu eta edukietara konektatzeko erabilitako ordenagailuan birus bat egoteagatik, nabigatzailearen funtzionamendu okerragatik edo beronen eguneratu gabeko bertsioak erabiltzeagatik, erabiltzailearen edo hirugarrenen sistema informatikoan (hardware eta software), bertan gordetako fitxategi edo dokumentuetan izan litezkeen kalteen erantzule ere ez da egiten.

MUGARIK GABE erabiltzaileak informazio honetan oinarrituta har ditzakeen erabakien arduratik kanpo geratzen da, bai eta Webguneko dokumentu eta grafikoek izan ditzaketan akats tipografikoez ere. Informazioak aurretiazko jakinarazpenik gabe aldaketak izan ditzake, Eduki aldaketak, luzapenak, hobekuntzak, zuzenketak edo eguneraketak.

Webgune honetan agertzen diren «Hiperesteken» funtzioa, soil-soilik, gaiaren gaineko informazioa duten Webguneak badirela informatzea da. MUGARIK GABE ez da aipatutako webgune horien edukien, funtzionamenduaren edo Hiperesteken erabileraz ezta horien emaitzaz ere erantzule egiten, ez du birusen edo sistema operatiboan (hardware eta software), erabiltzailearen dokumentu eta fitxategietan aldaketak eragin

ditzaketen bestelako elementuak ez daudela bermatzen, arrazoi horregatik erabiltzaileari gerta dakioken edozein motatako kalteren erantzukizunetik salbuetsita geratuta.

### **OROKORTASUNAK**

MUGARIK GABEk baldintza hauen betetzea bilatuko du, bai eta bere atariaren edozein erabilera oker ere, zuzenbidean zehaztutako ekintza zibil eta penal guztiak beteta.

### **JURISDIKZIOA**

MUGARIK GABE eta erabiltzailearen arteko harremana indarrean dagoen Espainiako legeriak gidatuko du eta edozein gatazka Bilboko epaitegi eta auzitegien eskuetan jarriko da.

Lege Ohar honen interpretazio, ezarpen eta betetzearen gainean sortzen diren zalantzatarako, bai eta erabilerak ekar ditzakeen erreklamazioetarako, esku hartzen duten alde guztiak Bilboko epaile eta auzitegien aginduetara ezartzen dira, egokitu dakiekeen beste edozein eskumeni berariaz uko eginda.